



“

CPAEN/NNPEK

Jardueren memoria 2023

EL FUTURO
ES ECOLÓGICO
aurrera goaz!



AURKIBIDEA

01

Nafarroako Nekazaritza Produkzio
Ekologikoaren Kontseiluaren 2023ko memoria.

- 02 CPAEN-NNPEK**
- 03 ARAUDIA ETA GOBERNU ORGANOA**
- 04 NAFARROAKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA**
- 06 JARDUERA ETA ZIURTAPEN-PROZESUA**
- 09 ZIURTAPENA ZIFRETAN**
- 15 SUSTAPENA**
- 17 KOMUNIKAZIOA**
- 21 SALMENTA PUNTUAK ETA OSTALARITZA**
- 22 MERKATUAK ETA AZOKAK**
- 26 JANTOKI KOLEKTIBOAK**

CPAEN-NNPEK

02

CPAEN-NNPEK Nafarroako Foru Komunitateko ekoizpen ekologikoa kontrolatzeko agintaritza da, eta **kontrol ofizialak eta ziurtapen-jarduerak egiteko ardura du**, objektibotasun- eta inpartzialtasun-berme egokiak eskainiz, eta bere eginkizunak betetzeko langile kualifikatuak eta beharrezko baliabideak edukiz.

Produktuak ziurtatzea arauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko bitarteko bat da, eta haren helburu orokorra alderdi interesdun guztiengan konfiantza ematea da, batez ere kontsumitzaileengan, bezeroengan, agintariengan eta publiko osoarengan. **Zenbat eta konfiantza-maila handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ziurtapenaren balioa.**

CPAEN-NNPEKek nekazaritzako elikagaiak ziurtatzen ditu, **UNE-EN ISO/IEC 17065 ARAUAK** eskumenari, jardueren sendotasunari eta erakundearen beraren inpartzialtasunari buruz ezarritako baldintzak betez.

CPAEN-NNPEKek Nafarroako Foru Komunitatean ekoizpen ekologikoa sustatzen du, Foru Komunitatean zein kanpoan ekintzak eginez. Sustapen honek informazioa ematen du eta ziurtatutako ekoizpenei balioa ematen die, eta funtsezkoa da sektorean zeharka ezarritako hobekuntza-ekintza guztietatik ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.

Produktu ekologikoek arau zorrotzak betetzen dituzte kalitate handia lortzeko, eta ingurumena babesten, landa-garapenean eta etxaldeetan animalien ongizate-maila handia edukitzen laguntzen dute. CPAEN-NNPEKek egiten duen sustapenaren helburu orokorra da **produktu horiek kontsumitzaileek behar adinako aintzatespen- eta balorazio-mailarekin merkaturatzea, eta, horrela, merkaturatzeko aukerak hobetzea, ekoizpen horien balio erantsiaren arabera.**



13/2023 **FORU DEKRETUA**, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritza ekologikoaren ekoizpena eta nekazaritzako eta elikadurako produktuetan horren adierazpena arautzen dituen.

2018/848 (EB) **ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA** 2018ko maiatzaren 30ekoa, produktu ekologikoen ekoizpen ekologikoari eta etiketatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.

Bigarren mailako beste araudi batzuk edo horiekin zerikusia dutenak, hemen eskuragarri: www.cpaen.org

GOBERNU ORGANOA

CPAEN/NNPEKren gobernu-organoa kideek osatzen dute:

Bokal operadoreak: **María Josefa Arrondo** (Lehendakaria eta ekoizpenen ordezkaria), **Iciar Ezpeleta** (Ekoizpenen ordezkaria), **Alberto Benito** (Ekoizpenen ordezkaria), **Raquel Sesma** (Merkaturatze/Banaketako ordezkaria), **Ander Cárcar** (Elaborazioen ordezkaria), **Patxi Anchorena** (Elaborazioen ordezkaria), **José Pedro Salcedo** (Inportazioem ordezkaria).

Kide ez-operadoreak: **Txema Lacunza** (kontsumitzaileen ordezkaria), **Juan Antonio Lezaún** (nekazaritzako ordezkari teknikoa), **José Alberto Erburu** (abeltzaintzako ordezkari teknikoa), **Jokin Resano** (agintaritza eskudunaren ordezkaria), **Enrique Arnedo** (zuzendaritza teknikoa).



Egitura betearazlea eta operatiboa langileek osatzen dute:

Zuzendaritza Teknikoa/Gerentzia: Enrique A.

Kontabilitate Administrazioako Teknikaria: Sandra G.

Kontrol-teknikariak: Miguel R., David O., Mikel A., Julen S., Alberto R.

Kalitate teknikaria: Amaia B.

Ziurtapen-teknikariak: Bárbara P., Lidia A., María R., Jorge F.

Komunikazio Teknikaria: Kattalin B.

Sustapen-teknikariak: Isabel P., Andrea L., Aneva C.

2023KO NAFARROAKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA

Nekazaritzako elikagai ekologikoen ekoizpena kontrolatzeko eta ziurtatzeko jardueraren kudeaketaren barruan, **CPAEN-NNPEKek ekoizpen horretatik sortzen diren datu guztiak bildu, zaindu, prozesatu eta igortzen ditu.**

Jarduerak sortzen dituen erregistro guztiak etengabe mantentzen eta eguneratzen dira, eta informazio baliagarria da operadore propioez bestelako alderdi interesdunen helburuetarako, hala nola nazioko eta Europako informazioa taldekatzeaz arduratzen diren agintaritzentzat edo sektorearen hazkundeari eta bilakaerari erantzuteko eta egokitzeko arauzko baldintzak aldatzeaz edo osatzeaz arduratzen direnentzat, bolumenari, konplexutasunari eta eskakizun-mailari dagokienez.



Nafarroak ekoizpen aniztasun handia du bere ezaugarri geografiko eta klimatologikoengatik. **2023aren amaieran, honako hauek izan ziren EKO sektorearen zifrak:**

05

Operadore kopurua: **786**

Ekoizpen-jardueren kopurua (abeltzaintza barne): **628**

Abeltzaintzako ekoizpen-jardueren kopurua: **76**

Abeltzaintzako produkzio-jardueren %, ekoizpen osoaren gainean: **%12**

Elaborazio jarduera kopurua: **177**

Inportazio-jardueren kopurua: **10**

Merkaturatzeko/banatzeko jardueren kopurua: **48**

Ziurtatutako azalera GUZTIRA (ha): **70.352**

Ziurtatutako operadore ekoizlearen batez besteko tamaina (hektareako azalera): **112 (31,46, larreak kontuan hartu gabe)**

Ziurtatutako nekazaritza azalera (ha): **42.117**

Ziurtatutako nekazaritza azaleraren % -a, Nafarroa osoaren gainean: **%7,35**

Ziurtatutako SIGPAC lursailen kopurua: **13.708 (9.100, larreak kontuan hartu gabe)**

Ziurtatutako SIGPAC esparru-kopurua: **22.271 (11.543 larreak kontuan hartu gabe)**

Lursail ziurtatuaren batez besteko tamaina (ha): **5,13 (1,98, larreak kontuan hartu gabe)**

Ziurtatutako esparruaren batez besteko tamaina (ha): **3,16 (1,56, larreak kontuan hartu gabe)**

1 ha baino gutxiagoko esparruen %, esparru guztien gainean: **%65**

0,5 ha baino gutxiagoko esparruen %, esparru guztien gainean: **%48**

Esnetarako abelburuen kopurua: **108**

Haragi-abelburuen kopurua: **1.980**

Esnetarako ardi-buruen kopurua: **1.198**

Haragitarako ardi-buruen kopurua: **2.218**

Esnetarako ahuntz-buruen kopurua: **354**

Haragitarako ahuntz-buruen kopurua: **606**

Zaldi-buruen kopurua: **1.750**

Erlauntz kopurua: **1.654**

Etxeko hegaztien buruak: **45.577**



CPAEN-NNPEK zerbitzuak operadore ziurtatuei, ziurtapen-eskatzaillei eta ziurtagiria eskuratzeko interesa duen edonori ematen die zerbitzua.

Ziurtagiria lortzeko prozesua honako hau da:

1. Informazioa.
2. Eskaera jasotzea eta berrikustea.
3. Ebaluazioa.
4. Ebaluazioa berrikustea.
5. Erabakiak hartzea.
6. Ziurtagiria bidaltzea.



Norbaitek interesa badu eta ziurtatzeko informazioa galdetzen badu, indarrean dauden tasak egiaztatzeko eta horiei buruzko informazioa emateko gida bat jasoko du. **Gida hau www.cpaen.org webgunean dago eskuragarri**, eta arauzko ziurtapen-betekizunak laburbiltzen ditu, nahi den jardueraren arabera. Horrela, interesdunak, erregelamenduen konplexutasunean sartu beharrik gabe, bete edo ez betetzeko dituen aukeren hasierako balorazioa egin dezake, eta, beraz, eskaera aurkeztea erabakiz gero, egin dezakeen eskaeraren balorazioa.

Beharrezkoa eta garrantzitsua den informazioa eskualdatzea bermatzen duen gida hau ematearekin batera, **behar diren azalpen eta argibide guztiak emango dituzte teknikariek, bai CPAEN-NNPEKen egoitzan bertan, bai telefonoz edo posta elektronikoz, betiere informazioa eskatzen duenaren beharretan eta komenigarritasunean oinarrituta**. Informazio-lan hori ziurtapen-teknikariek egin ohi dute, baina kontrol-teknikariek edo zuzendaritzak berak ere egin dezakete, kontsulten eskuragarritasunaren eta edukiaren arabera.



Ziurtatzeko erabakia hartu ondoren, CPAEN-NNPEKek eskatzaileak aurretik bete dituen ziurtapen-eskaerak jasotzen ditu. **Inprimakiak www.cpaen.org webgunean daude eskuragarri**, eta posta arruntez edo eskura ematen dira, beharraren arabera. Ziurtapen-teknikariek iristen diren eskaera berri guztiak berrikusten dituzte, osatu gabe egonez gero eskatzaileari jakinarazten diote, eta, osatu ondoren, kontrol-teknikari bati esleitzen zaio hasierako auditoria egiteko. **Eskabidea osatutzat jotzeko, eskatzaileak ziurtapen-akordio bat sinatu behar du, eta CPAEN-NNPEKek prestatu eta aurrekontu batekin batera entregatu behar du.**



Hasierako auditoria kontrol- edo ziurtapen-teknikariek egiten dute, eskuragarritasunaren arabera. **Auditoretza horretan egiaztatzen da eskaeran adierazitako jarduera eta unitateak errealitatearekin bat datozela**, eta ziurtagiria eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen diren ebaluatzen da. Teknikariek ebaluazioaren txosten bat egingo dute. Txosten horretan, desbideratzeak zehaztu badira, horiek konpontzeko epeak jasoko dira. Ez da ohikoa produktuaren laginak hartzea hasierako auditoretzetan, baina posible da ziurtatu beharreko jardueraren eta eskaeratik hasierako auditoria egin arte egindako jardueraren arabera.

Laginarekin kasuan, lagina laborategi baliiodun batek aztertzen du, eta lagindutako matrizearen gainean egin beharreko saiakuntzaren arabera aukeratu da alde aurretik. Egiaztapen-teknikariek saiakuntzaren emaitzaren adostasuna ebaluatzen dute laborategitik jasotzen denean. Emaitza analitiko desegokia dagoenean, ziurtapeneko edo zuzendaritzako teknikariek ikerketa ofizial bat egiten dute, produktuaren zergatiak, jatorria eta osotasuna zehazteko.



Ebaluazio guztiak (auditoriak + emaitza analitikoak) ziurtapen-teknikariek edo zuzendaritzak berak berrikusten dituzte, erabakia hartu aurretik, behar bezala egin direla bermatzeko. Nolanahi ere, berrikuspen hori ebaluazioa nork egin duen ez den beste pertsona batek egiten du, autoberrikustea saihesteko. Berrikuspenaren ondorioz, **justifikatutako erabaki-proposamen** bat egiten da, edo ebaluazioa egin duen teknikariarekiko argibide edo jarduera gehigarriak eskatzen dira, azken erabakia modu arrazoituan eta bidezkoan hartu ahal izateko.



Ziurtapen Batzorde batek hartzen du erabakia. Batzorde honek espedienteko informazio guztia eskura dezake, eta aurreko urratsetan parte hartu ez duten hiru teknikaririk eta zuzendaritzak osatzen dute. Zuzendaritzak ez du botorik ematen erabakian. Kontrako erabakia hartzen bada eta, beraz, ziurtagiririk ematen ez bada, prozesu bat hasiko da, eskatzaileari erabakiaren, arrazoiaren eta, ziurtagiriarekin jarraituz gero, konpontzeko duen epearen berri emateko.



CPAEN-NNPEKek ziurtagiria eskatzaileari ematen dio, Batzordeak ziurtagiria eman duenean. Ziurtagiri elektronikoa da, eta arauzko baldintzak betetzen ditu gutxieneko edukia bermatzeko eta faltsutzea zailtzeko. Landare- edo animalia-ekoizpenaren kasuan, egiaztatutako lursail eta animalia guztiek kalifikazio-data jakin batzuk jasotzen dituzte, operadoreak jakin dezan noiz amaitu den konbertsio-aldia, eta, beraz, noiz erabili ahal izango dituen EKO terminoak eta zigiluak beren ekoizpenetan; kalifikazio horiek labore/landare-aprobetxamendu moten eta animalia-espezieen arabera dira.

Ziurtagiria eman ondoren, **operadore guztiei urtero errepikatzen zaizkie ziurtagiriak berritzeko 3tik 6ra bitarteko puntuak**, operadore eta jarduera ziurtatu gisa jarraitzen duten bitartean. Operadore batek bere jarduera ziurtatuak handitu nahi baditu, 1etik 6ra bitarteko puntuak errepikatuko dira gehitu nahi duen jarduera berri bakoitzerako.

Emandako ziurtagiriaren eta ziurtatutako ekoizpenak merkaturatzearen ondorioz, CPAEN-NNPEKek urtean zehar planteatzen diren eskaera espezifiko, zalantza eta beharrei erantzuten die. Jarduera horren laburpen gisa, zifrak aurkezten dira **2023 ZIURTAPENA ZIFRETAN** atalean

Ziurtatutako jarduera bakoitzeko egindako kontrol kopurua: 984

Aztertutako lagin-kopurua: 78

- Laginak hartzea eta ondoren analizatzea oso tresna lagungarria da ekoizpen ekologikoan baimendu gabeko produktu eta substantzien erabilerarekin lotutako balizko ez-betetzeak detektatzeko, edo eko-produktuaren ordez eko gabekoa jartzeko.

Aztertutako laginen kopurua, ikerketarekin ados ez dauden emaitzarekin: 5

- Ekoizpen ekologikoan baimendu gabeko substantzien hondakinak detektatzen diren guztietan, ikerketa-prozesu bat hasten da hondakina egotearen arrazoiak eta produktu ekologikoaren osotasuna zehazten saiatzeko. Ikerketa beste operadore eta agintari batzuetara zabaltzen da, behar izanez gero.

Konbertsio-aldia murrizteko ikuskapen-kopurua: 2

- Nahitaezko ikuskapena, konbertsio-aldiaren zati gisa aurretiazko aldi bat (kontrolaren mende ez dagoena) atzeraeraginez aitortzeko eskatzen den kasuetan.

Ekoizpenen, lursailen, animalien ziurtagiritik kendutako kopurua: 11

- Ziurtagiria kentze horiek lote zehatzen fabrikazioei eragiten diete, edo laboreen edo lursailen uztei, edo animalien ekoizpenei. Kasu horietan, litekeena da lurzatiek konbertsio-aldia berriro igaro behar izatea, ziurtagiria kentzea eragin duen arrazoiaren larritasunaren arabera. Operadoreak eraginik izan ez duten gainerako ekoizpenak merkaturatzen jarrai dezake.



Ziurtagiriaren aldi baterako etenduren kopurua: 8

- Ziurtagiri-eteteek eragozten dute edozein produktu edo ekoizpen merkaturatzea, eta gehienez ere 6 hilabeteko iraupena dute, hori baita operadorearen ziurtagiria etetea eragin duten arrazoiak konpontzeko gehieneko denbora.

Operadore ziurtagiria kentzea: 0

- Operadore-ziurtagiria kentzeak operadoreen erregistroan baja ematea dakar, baldintzak ez betetzeagatik egon daitekeen ondorioz larriena da, eta ezin zaio operadoreari ziurtagiria berriro eskatu gutxienez urtebete igaro arte.

Operadoreek egindako inportazioen kopurua: 33

- EBtik kanpoko herrialdeetatik datozen inportazioak dira. Inportazio horiek guztiek ziurtagiri elektronikoa izan behar dute nahitaez, eta ziurtagiri hori inportazio-prozesu osoan inplikaturako hainbat agintaririk eman eta egiaztatzen dute.

Eskaera egin ondoren emandako esportazio-ziurtagirien kopurua: 181

- Esportazio-ziurtagiri horiek nahitaezkoak edo aukerakoak dira, herrialde hartzaileen arabera.



Eskaera egin ondoren berrikusitako produktu-etiketen kopurua: 144

- Etiketak inprimatu aurretik berrikustea ez da nahitaezkoa, baina operadore askok zerbitzu hori eskatzea erabaki dute, etiketatze-baldintzak ez betetzeko prebentzio-neurri gisa, inprimatutako produktuen etiketak erabili ezin izatea ekar baitezakete.

Jarduera berriak ziurtatzeko erantzundako eskaeren kopurua: 69

- Operadore berriek ez ezik, izena emanda dauden eta ziurtagiria duten operadoreek ere ziurtagiriaren irismena handitu dezakete, beste jarduera batzuetarako eskatuz.

Eskaera egin ondoren ziurtatutako produktu-erreferentzia berrien kopurua (elaboratzaileak, inportatzaileak, merkaturatzaileak/banatzaileak): 254


- Produktuaren erreferentzia berriak ziurtatzeko, beti ebaluatzen dira horien formulazioak (nekazaritzako osagaiak, gehigarriak, aromak, laguntzaileak, etab.), eta egiaztatzen da operadore eskatzaileak hornitzaileen ziurtagiriak dituela. Prozesu honen bidez, operadoreen akats edo nahasmen baten ondorioz bat ez datozen produktuak merkaturatzea saihestu nahi da. Ziurtapen Batzordeak hartzen du ziurtapenaren erabakia, teknikariek proposatu ondoren.

Landare-ugalketarako material ez-ekologikoa erabiltzeko emandako baimenen kopurua: 797


- Aldaera ekologikorik ez badago, ekologikoa ez den landare-ugalketarako materiala erabili ahal izateko arauzko nahitaezko baldintza, aldeztu aurretik egiaztatuta.

Ziurtapen Batzordearen bilkurak: 18






NÚMERO DE PRODUCTORES/AS
 ERKOIZLE KOPURUA




GANADERÍA | NÚMERO DE GANADEROS/AS
 ABELTZAINZA | ABELTZAIN KOPURUA







ELABORACIÓN | NÚMERO DE ELABORADORES /AS
ELABORAZIOA | ELABORATZAILE KOPURUA



IMPORTACIÓN | NÚMERO DE IMPORTADORES /AS
INPORTAZIOA | INPORTATZAILE KOPURUA




DISTRIBUCIÓN Y COMERCIALIZACIÓN | NÚMERO DE DISTRIBUIDORES/AS
BANAKETA ETA MERKATURATZEA | BANATZAILE KOPURUA






Nº DE SOLICITUDES DE AUTORIZACIONES DE USO MATERIAL DE REPRODUCCIÓN VEGETAL NO ECOLÓGICO TRAMITADAS
LANDARE-UGALKETARAKO MATERIAL EZ-EKOLOGIKOIA ERABILTZeko BAIMEN-ESKAERA IZAPIDETUEN KOPURUA



CERTIFICADOS | NÚMERO DE CERTIFICADOS DE EXPORTACIÓN EMITIDOS
ZIURTAGIRIAK | JAULKITAKO ESPORTAZIO-ZIURTAGIRIEN KOPURUA



NÚMERO DE IMPORTACIONES
IMPORTAZIO-KOPURUA



CANTIDAD IMPORTADA (KG)
IMPORTAZIO-KANTITATEA (KG)



Sustapen ekintzen bidez, gizartea, oro har, kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi da Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren inguruan. Europako zein Estatuko politikak ekoizpen ekologikoaren ereduaren aldeko apustua egiten ari dira, ez bakarrik lehen sektorearen ikuspuntutik, baita kontsumitzaileen ikuspegitik ere, produktu ekologikoen kontsumoa sustatzeko, produktu horien eskaria handitzeko.

CPAEN/NNPEKeko Sustapen Departamentua lanean ari da Nafarroako elikagai ekologikoak sustatzeko, helburu hauekin:

- **Herritarrak kontzientziatzea nekazaritza ekologikoak osasunean, ingurumenean eta ekonomian** dituen onurez.
- **Elikagai ekologikoak, lokalak, freskoak, sasoikoak eta lehen sektoreak hornitutakoak sustatzea**, merkaturatzeko zirkuitu laburren bidez.
- Nekazaritza ekologikoaren balioak **Nafarroako herritar** guztien artean zabaltzea, oro har, eta gazteen artean bereziki.
- Nafarroako elikagai ekologikoak erabiltzen dituzten saltokiak eta ostalaritzako establezimenduak ikusaraztea eta sustatzea, eta **CPAEN/NNPEKen Saltoki eta Jatetxe Jasangarrien Sarea sustatzea**.



- **Nafarroak bere ekoizpen ekologikoa handitzea eta tokiko elikadura ekologikoa gure lurraldera iristea erraztea**, nekazaritza ekologikoa aukeratzen duten nekazari eta enpresen kopurua handituz.
- CPAEN/NNPEKek gure erkidegoan ziurtatutako **elikagai ekologiko ugari ikusaraztea eta sustatzea**, bai tokiko azoketan, bai nazioko azoketan.

CPAEN/NNPEKen sustapen-ekitaldi garrantzitsuenetako bat **Nafarroako Azoka Ekologikoa** da. Orain dela 8 urte egin zen lehenengo edizioa, eta sektore ekologikoaren eta kontsumitzaileen arteko topagunea da. Horrez gain, Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa ezagutarazten du, nekazaritza-sektoreari balioa emanez.

Urtero egiten diren sustapen-ekintzen bidez, **Ekologikoak eta CPAEN/NNPEK** marken ahalik eta zabalkunde handiena lortzea izan da helburua, hainbat kanpaina eta ekitaldiren bidez, bai eta zigilu ekologikoa eta euro-hostoa ezagutaraztea eta Nafarroako elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzen saiatzea ere, merkaturatzeko bide laburren bidez. Horretarako, prentsan publi erreportajeak egin dira, irratietan elkarrizketak egin dira, sare sozialetan, merkatuetan eta azoketan parte hartu da, sentsibilizazio-tailerrak egin dira.

Sustapen-ekintzen hartzaileak honako hauek dira: **kontsumitzaileak, lehen sektore ekologikoa, saltokiak eta ostalaritzako establezimenduak.**

Jarraian, aurtengo sustapen-ekintzen laburpena egingo dugu:





337 erreportaje irratietan (Ser, Onda Cero eta Euskalerrria Irratia)
6 argitalpen Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan
Komunikabideetara bidalitako **22** prentsa-ohar
12 erreportaje Aquí La Tierra (RTVE) -n
2 prentsaurreko
Prensa-dosier **1**
Ekologikoak **2** sustapen-aldizkari
Navarra Bio buletin digitaleko **12** bidalketa 8.200 pertsona baino gehiagori
20 bidalketa mailchimp bidez
2 babesletza sektoreko hedabideetan: SEAE eta Argia agenda
2 villavesa errotulatu Nafarroako Azoka Ekologikoan

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA!

**EL FUTURO
ES ECOLÓGICO**
aurrera goaz!

Lau bideo berri egin dira, iaz hasitako kanpainari jarraipena emateko. Guztira, 11 bideo egin dira. Oraingo honetan, bideoetako protagonistak osasunean eta ekoizpen ekologikoan adituak eta elikagai ekologikoen kontsumitzaileak izan dira.

Erreproduzioak Youtuben, denera: 11.712





19.777 jarraitzaile BFn



3.519 jarraitzaile IGn



2.594 jarraitzaile X-n



Sare sozial berria: LinkedIn 83 jarraitzaile

WEBGUNEAK

- www.navarraecologica.org

60.620


Hobekuntzak eta atal berriak: sasoiko elikagaien atala sortzea, jantoki kolektiboak, saltokiak eta ostalaritza



- cpaen.org

39.444

Bilatzailea hobetu da




Sentsibilizazio ekologikoko **33 tailer egin dira Nafarroako hainbat herritan.**




Guztira, **zortzi tailer** mota izan dira (gazta tailerra, ogi tailerra, ipuin kontalariak, hazi ponpen tailerra...) honako herri hauetan: Iruñea, Uztarroz, Otsagabia, Zolina, Urotz, Ezkaroz, Zangoza, Kaseda, Lizarra, Erriberri, Mutilva, Aibar, Urroz, Abartzuza, Yelz, Espinal, Leitza, Liedéna, Amaiur, Arguedas, Yesa eta Lodosa.

SUSTAPEN MATERIALAK



- Egutegia
- Sasoiko egutegia
- Harvard platera
- Askari osasungarrien pegatina
- Etorkizuna ekologikoa da! identifikatzaileak
- Koadernoak
- Roll-up
- Komekokoak
- Saltoki txikiak poltsa promozionalak
- Kartoizko poltsak
- Karpak
- Birziklatutako lonak dituzten materialak: zorroak, poltsak eta erosketa-orgak



Ekoplan bakoitzak **eko-gune bat bisitatzea proposatzen du**, CPAEN/NNPEK ziurtagiria duten elikagai ekologikoak ekoizten eta egiten dituzten pertsonak bisitatzeko, hurbileko pasealeku bat eta proposamen gastronomiko bat. Aurten **5 EKOpelan berri sartu dira** (17 guztira) eta liburuxka berriz diseinatu da.

Bestalde, 4 ekoplan antolatu dira in situ:

2 ekoplan autobusez (*Aranda ekologikoak Faltzesen eta Beraska Beran*), 50 pertsonak parte hartuta.

2 eskola-ekoplan (*Elkarkide*), 100 ikaslek parte hartuta. Halaber, sustapen-bideo bat egin da.

Nafarroako upeltegiak ezagutzea eta mahastiak bisitatzea, Aranzadiko baratzeetan ibilaldi bat egitea, non sasoiko barazkiak landatzen dituzten, pasta fabrika bat ikustea fabrikazio eta prestaketa prozesua ikusteko, sagardo sagarrari buruz ikastea Oskotzen, edo Beran erlategiak bisitatzea dira Ekoplanen proposamenetako batzuk.



ekoplanes

CONOCE TU ENTORNO ECO
EZAGUTU ZURE EKO-INGURUA





Aurten kanpaina berri bat egin da **CPAEN/NNPEK Salmenta Puntuen Sarearekin**, CPAEN/NNPEKek ziurtatutako elikagai ekologiko gehiago sar ditzaten. Kanpainaren helburua elikadura birlokalizatzea da.

Kategorizazio berri bat garatu da: **hiru eko-hosto, bi eko-hosto eta hiru eko-hosto**.

Guztira, Nafarroa osoko **41 establezimenduk** osatzen dute sarea, eta hainbat kanpaina egin dira irratan, erosketa-txartelen zozketetan edo Nafarroa Saltsa Berdean errezeta ekologikoen lehiaketan.

OSTALARITZA



Aurten kanpaina berri bat egin da **CPAEN/NNPEKen Jatetxe Iraunkorren Sarearekin**, CPAEN/NNPEKek ziurtatutako elikagai ekologiko gehiago sar ditzaten. Kategoria berri bat garatu da: **eko elikagaiak dituzten jatetxeak, eko + elikagaiak dituzten jatetxeak, eko jatetxea**.

EKOchef figura berria: Goiza Isiegas, Akari Gastrotekaren jabea eta sukaldaria, Nafarroako elikagai ekologikoen EKOchef izendatu du CPAEN/NNPEKek. Hiru showcooking egin ditu azoketan.

Babesletzak: akordioak Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkartearekin eta ANAPEHrekin.



Iruñeko EKOMerkatua CPAEN/NNPEKek antolatutako merkatua da eta **2020ko martxotik egiten den Nafarroako elikagai ekologikoen eta tokiko elikagaien hileko merkatua da**. Salmenta zuzeneko merkatua da, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topagunea eta Nafarroako ekoizpen ekologikoa sustatzeko gunea. Hileko lehen larunbatean egiten da, Iruñeko Autobus Geltoki Zaharrear, 10:00etatik 14:00etara.

2023an, **11 EKOMerkatu egin dira, batez beste 14 postuarekin**; horien artean, honako sektore hauek nabarmentzen dira: olioak, hestebeteak, frutak eta barazkiak, arrautzak, lekaleak, eztiak, okindegiak, pasta, gaztak eta ardoa.

Berrikuntza gisa, aurten **'Zatoz eta dastatu'** dastatzeko gunea jarri da martxan, Nafarroako elikagai ekologikoak dastatzeko doako gunea. 8 ediziotan egin da, sasoiko elikagaiei balioa emanez.

8 EKOTopaketa antolatu dira (sukaldaritza eta afari ekologikoko eskolak), eta guztira 200 lagun bertaratu dira.



Nafarroako VIII Azoka Ekologikoa irailaren 15, 16 eta 17an ospatu zen Noaingo Zentzumenen parkean. Nafarroako Azoka Ekologikoa sektore ekologikoaren eta kontsumitzaileen arteko topaketa handia da, Nafarroako elikagai ekologikoen merkatu handiena, gune gastronomikoarekin, jarduerekin, haurrentzako gunearekin eta askoz gehiagorekin.

30 ekoizle eta enpresa ekologiko baino gehiagok parte hartu zuten ekitaldian, eta publiko guztiarentzako hainbat jarduera egin ziren, hala nola, bi eskuko dastatzeak, yoga, parkera bisita gidatuak, txikienezko tailerrak eta musika.

Azokan parte hartu zuten elikagaiak eta sektoreak honako hauek izan ziren: **ardoak, garagardoak, gaztak, olioak, lekaleak, txokolatea, kafeak, marmeladak, barazkiak, kontserbak, haragia, haziak, kosmetika, ogiak eta pastak edo zukuak**, besteak beste. Enpresa ekologiko gehienak Nafarroakoak dira, baina Errioxako, Andaluziako, Valentziako Erkidegoko eta Kantabriako enpresek ere parte hartu zuten.



BIOTERRA EKAINAK 2-4 FICOBA (IRUN)

8 enpresak parte hartu zuten, Nafarroako jaki mota askorekin: ahabiak, elikagai deshidratatuak, kontserbak, olioak, almendrak, eztia, frutak eta barazkiak, pasta, ongailuak, kafeak eta ardo freskoa.

CPAEN/NNPEKek fideltasun-trofeoa jaso zuen, 10 urteko parte-hartzearen ondoren.

Berritasuna: showcookinga Goiza Isiegasekin, CPAEN/NNPEKeko EKOchef.



ORGANIC FOOD IBERIA EKAINAK 7-8 IFEMAn (MADRID)

Iberiar penintsulako produktu ekologikoen nazioko eta nazioarteko azoka liderra.

CPAEN/NNPEKekin **9 enpresa** bertaratu ziren, Nafarroako elikagai ekologikoen eskaintza zabalarekin: fruitu lehorren kremak, kontserbak, frutak, barazkiak, zukuak, olioak eta ongailuak, infusioak.

Berrikuntza: parte-hartzea eta irudi bateratua INTERECOKekin



BIOCULTURA BILBAO URRIAK 6-8 BEC (BILBO)

BioCultura produktu ekologikoen eta kontsumo arduratsuaren azoka da, estatuko handienetakoa.

CPAEN/NNPEKekin **11 enpresa ekologiko** bertaratu ziren, honako elikagai mota hauekin: gazta, ahabiak, perretxikoak, risotto deshidratatua, sasoiko barazkiak, pasta lehorra soltean eta pizza oinarriak, olioak eta ongailuak, kafeak, marmeladak, kiwiak, almendrak eta eztia.

Berrikuntza: showcooking Goiza Isiegas CPAEN/NNPEKko EKOchefarekin.



BIOCULTURA MADRID AZAROAK 2-5 IFEMA (MADRID)

BioCultura Madrid produktu ekologikoen eta kontsumo arduratsuaren azoka garrantzitsua da.

CPAEN/NNPEKekin hainbat sektoretako **7 enpresa** bertaratu ziren, sektore hauetakoak: gazta eta esnekiak, olioak, frutak eta barazkiak, kontserbak, elikagai deshidratatuak, zereala eta okintza/gozotegia.



Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren eta CPAEN/NNPEKen arteko hitzarmena da, tokiko produktu ekologikoen **kontsumoa sustatzeko errestaurazio kolektiboan, sentsibilizazio-ekintzen bidez.**

Lau urte daramatza, eta aurten, batez ere, errestaurazio kolektiboan parte hartzen duten eragile guztiak sentsibilizatu dira. Tokiko errestaurazio kolektiboaren eskaria indartzeko eta jantoki osasungarri eta jasangarriak praktikan jartzeko, hainbat sentsibilizazio-ekintza egin dira:

- Burlatako **CFIP zentroan menu ekologikoak** diseinatu eta gauzatzea eta 20 plater ekologiko dituen errezeta-liburu bat egitea.
- "**Elikadura osasungarria eta jasangarria**" izeneko unitate didaktikoaren bidez, 400 ikasle sentsibilizatzeko ekintzak **Nafarroako 5 ikastetxetan.**
- Elikagai ekologikoei buruzko informazio espezializatua **Nafarroako Unibertsitatean Nutrizioan gradua egiten ari diren 58 ikasleri.**
- **Askari osasungarri eta jasangarrien tailerrak** antolatu dira **153 familien** parte-hartzearekin.
- Gurasoentzat **barazkiak, lekaleak eta zerealak prestatzeko 9 tailer. Denera, 90 pertsona** inguruk parte hartu dute.



CPAEN-NNPEK
Serapio Huici etorbidea 22. Peritos eraikina
31610 Villava (Navarra)

Tel./Fax 948 17 83 32-948 25 66 42
cpaen@cpaen.org

CPAEN
NNPEK
ES-ECO-025-NA

